

C1 IRAKURRIAREN ULERMENA

1. ARIKETA

Ariketa honetan artikulua bat duzu eta sei galdera. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 ze.) bezala.

MATZNEFF KASUA: Frantziako mundu literarioak urtetan babestu duen pedofiloa

Urtarrilean Vanessa Springora editoreak argitaratu duen liburu autobiografiko batek lurrikara eragin du Frantziako letren errepublikan: Gabriel Matzneff idazleak berarekin izan zuen harreman pedofiloa kontatu du, bide batez 60ko hamarkadaren osteko giro intelektualak onartu zituen abusuzko praktikak agerian utziz.

"Hamalau urte dituzunean, ez duzu pentsatzen 50 urteko gizon bat zain izango duzula eskolatik ateratzean, ez duzu imajinatzen harekin hotel batean biziko zarela, ezta haren ohean aurkituko zarela ere". Vanessa Springorak *Le consentement* liburu autobiografikoan idatzitako esaldia da. 14 urte zituenean ordurako gizon heldua zen Gabriel Matzneff idazlearekin izandako harremana kontatu du bertan. Afari batean ezagutu zuten elkar: idazlea, gaur egun editorea den Springora, eta honen ama. Gero etorri ziren gizonak neskari idatzitako gutunak, kalean zihoala atzetik jarraitzea, eskola-atarian itxarotea, hotel bateko gelara eramatea, gainontzeko guztia. Harreman pedofilo bat, zeinaren biktimak, bizi izandakoa kontatzera ausartu denean, Frantziako Estatuko panorama literarioa astindu duen.

Liburuak aletzen ditu harreman horren menpe zegoen bitartean Springorak izan zituen sentimendu kontraesankorrak, bere burua erruduntzat jotzea adibidez, hasieran Matzneffekin egotea onartu zuelako. Amak izandako erreakzioa ere kontatzen du: "Ez zara konturatzen pedofilo bat dela?". Baina 14 urte zeuzkan. Maiteminduta zegoela uste zuen, nahiz eta bazekien zerbait ez zegoela ongi. Biktima izatearen kontzientzia ezaz eta ondoren jasandako sufrikario psikologikoaz ari da luzerako debatea ekar dezakeen liburuan.

Kasuari buruz zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta asaldagarriagoa da, urtarrilean publikatu den liburuak, berez, ez baitu ezer berririk kontatzen. Matzneff, sexu-abusuak isilpean gorde beharrean, pedofilia publikoki defendatzen aritu da urte luzetan. Haren liburu askotan agertzen da gaia eta bere burua pederasta gisa definitzeko arazorik ere ez du izan. *Les moins de seize ans* saiakeran (1974) 10 eta 16 urte bitartean dituzten pertsonak "hirugarren sexu" bat osatzen zutela defendatu zuen. "Nire biziandian ezagutu ditudan bi izaki sensualenak hamabi urteko mutiko bat eta hamabosteko neska bat dira", idatzi zuen *Passions schismatiques* (1977) liburuan.

Jarrera hori erakutsi arren, ia atzo goizera arte Matzneffek presentzia publiko normal-normala izan du. Gallimard argitaletxeak iazko azaroan publikatu zion azken liburua: *Le consentement*, eta aitortza bereziak ere ez zaizkio falta izan: 2013an *Renaudot* sari prestigiotsua eman zioten, *Goncourt* sariarekin batera letra frantsesetan ematen den garrantzitsuen.

Baina nola da posible mundu guztiaren aurrean jarrera horiek defendatzen dituen norbaitek orain arte problemarik eduki ez izana? Springorak berak eman ditu auzia ulertzeko gako batzuk Frantziako irrati katean. Duela 40 urteko "ohituren iraultza" hartu du hizpide: "1968an 18 urte zeuzkaten helduen aurrean nengoen, eta haiek jaso zuten heziketa oso zurruna zen, maiz erlijioso, zeinean erabateko tabua zen sexualitatea aintzat hartzen zuen kontu oro. Hori guztia mila puskatan hautsi zen 70eko hamarkadako liberazio sexualarekin batera eta, zoritxarrez, zenbait gehiegikeria ere ekarri zituen. Izan ere, bidean haurrak eta adoleszenteak sakrifikatu ditugu".

1977. urtean gertatuak ilustratzen du hoberen Springorak deskribatutako iritzi-giroa. Noraino iristen ziren pedofiliaren alde egiten zutenen garroak. Urte hartan, Matzneffek gutun ireki bat sinatu zuen beste zenbait intelektualekin batera, Frantziako zigor kodea errebisatzen ari zen batzordeari zuzendua. Eskari nagusia: hainbat artikulua ezabatzea, besteak beste 331/3.a, 15 urte baino gutxiagoko norbaitek sexu harremanak edukitzeko baimena emanaz gero ere, erlazio horretan indarkeria presuntzioa ezartzen zuena. Sinatzaileen ustez, adulterioaren aurkako legeak bezain zaharkituta zegoen; haurdunaldia nork bere borondatez eteteak edo

antikonzeptiboen erabilerak izan zuten jazarpen legalaren parekotzat jo zituzten umeak pedofiliatik babesteko ezarritako mugak; eta horrelakoak bertan behera uzteko eskatu zuten, edo sakonki aldatzeko, “haurrak eta nerabeak aukeratzen dituen pertsonekin harremanak edukitzeko eskubidea aitortzeko bidean”. Praktikan pederastiaren zigorgabetasuna ekarriko zuen eskari horrekin bat egin zutenen artean, XX. mendeko bigarren erdiko idazle eta intelektual frantziar garrantzitsuenetariko asko: Louis Althusser, Roland Barthes, Simone de Beauvoir, Jacques Derrida, Michel Foucault, Jean-Paul Sartre... Gaur egungo betaurrekoekin zaila da sinestea, baina hala izan zen.

Le consentement liburuarekin sortu den lurrikarak ikasgai ugari utz dezake. Horietako bat da, agian, garai bakoitzean aurrerakoitzat jotzen diren pentsamoldeak erabil daitezkeela bidegabekeriak zurrizteko ere.

Argia aldizkaria. Gorka Bereziartua. (moldatua)

0. Vanessa Springorak liburu batean...

- a) Gabriel Matzneff-ek egin zizkion iruzurrak kontatu ditu.
- b) Gabriel Matzneff-en biografia kontatu du.
- c) *Umetan jasan zituen abusuak jakitera eman ditu.*

1. Springora Matzneffekin hasi zenean...

- a) gorroto zion, harekin egiten ari zenagatik.
- b) normal ikusi zuen egoera, harrigarria bada ere.
- c) paretik kendu nahi izan zuen, baina ezin.

2. Matzneffen jarrerak jende asko harritu ditu.

- a) gertatutakoa behin eta berriro ukatu duelako.
- b) lotsarik gabe egiten duelako pedofiliaren alde.
- c) Springora-ri egotzi diolako gertatutakoaren ardura.

3. Matzneffek pedofiliaz duen iritzia ezaguna da,...

- a) baina horrek ez dizkio agerpen publikoak gutxiagotu.
- b) eta horregatik gutxiagotan agertu da komunikabideetan.
- c) eta horregatik sariak kendu eta ukatu dizkiote.

4. Nola liteke gehiegikeria horiek onartu izana?.

- a) erlijio katolikoak beste alde batera begiratu zuelako.
- b) ordura arteko heziketa tradizionalak onartzen zituelako.
- c) sexu askatasunari lotuta zetozelako.

5. Garai hartako giroaren isla da...

- a) Frantziako zigor kodetik pedofilia kendu izana.
- b) nerabeekin izaten diren sexu-harremanak zigorgabetzeko eskaria.
- c) pedofilia legeztatzeko 331/3.a artikulua indarrean jarri izana.

6. Gertaera honetatik atera daitekeen ondorioa da...

- a) batzuetan askatasun eskaerek eskubideen urraketa dakartela.
- b) haur eta nerabeen askatasuna lehentasuna dela.
- c) legeak beti garai berrietara egokitu behar direla.

Galderak	0	1	2	3	4	5	6
Erantzunak	C						

2. ARIKETA

Ariketa honetan hizkuntzen irakaskuntzaren gaineko sei testu-zati dituzu eta zortzi esaldi. Lotu testu-zati bakoitza bere esaldiarekin, adibidean (0 zenb.) bezala.

- 0.** Hizkuntza baten irakaspina zeregin konplexu eta bihurtu askotarikoa izan da beti. Hizkuntza baten ikaste prozesuan esku hartzen dute, batetik, hizkuntzaren akademiak, adituek eta hizkuntzalariek eta, bestetik, hizkuntza erabiltzen duten hiztunek, hau da, delako hizkuntza hitz egiten dakitenek eta, noski, hitz egiten dutenek.
- 7)** Hizkuntzaren akademiak, hortaz, arauak ezarriko ditu, bete beharrekoak, eta hizkuntza irakasten dutenek arau horiei garrantzia emango diete; ahaztu gabe, noski, hizkuntza horren erabilera ere badagoela. Edonola ere, inguruan hitz egiten ez den hizkuntza baldin bada irakasten dena, arauak izango dira abiapuntu, horiek ageriko baitira gero hizkuntza ezagutu eta hitz egiten duten hiztunen ahotan.
- 8)** Aro ezberdinak igaro ditu hizkuntzaren irakaskuntzak. Urte askoan, gramatika irakastea izan zen hizkuntza irakastea. Oso luze jo zuen aro horrek. Gero, bestelako haizeak jo zuen. Orduan, praktikari eman zitzaion, eta ematen zaio oraindik, lehenasuna. Hizkuntza praktikatzea da gauzarik lehena; hau da, hitz egitea, gero utzirik arauak eta gainerakoak ezagutzea.
- 9)** Oraingo egunean, guk Genevan (Suitzan) egiten duguna esango dizut, horixe ezagutzen baitut ongien: bien arteko elkarreragina landu. Alegia, ez bakarrik praktika, ezta bakarrik gramatika ere. Bien arteko loturan sakontzen saiatzen gara gu, eta horretan, gogoeta egiten dugu praktikak gramatikari nola lagundu diezaiokeen antzeman nahirik, eta alderantziz, gramatikak praktikari. Horixe da lana, eta ez da erraza ere, bi aldeek ere esajeraziora jotzen baitute, hala gramatikak nola praktikak: gramatika modu esajeratuan lantzen zuten lehen, eta bat-batekotasuna modu exageratuan eta itsu-itsuan lehenestera jotzen da orain.
- 10)** Gehienetan, arrazoi politikoak direla tarteko, «estatu bat, hizkuntza bat» delako araua aplikatzen da. Horixe izan da estatu askoren eraikuntzan nagusitu den irizpidea. Horrek eragin du estatu horren barruko hizkuntza asko desagertze bidean hastea, hizkuntza nagusi horren presioari ezin eutsiz.
- 11)** Baina badira arrazoi ekonomikoak ere hizkuntza bakarraren aldeko hautua egiteko. Frantziako Iraultzaren ondoko lehen bi urteetan, adibidez, Errepublikaren ediktu guztiak Frantziako hizkuntza guztietan zabaldu zituzten: Euskaraz, okzitanieraz, flandrieraz, bretoieraz, altsazieraz... Bi urte eta gero, horrela jarduterik ez zutela jabetu ziren. Itzultzaileak ordaindu behar zituzten, inprimategia ere bai, hau eta hori eta hura... Horrela, guztiz aldatu zuten beren asmoa, eta hizkuntza bat hautatu zuten, hizkuntza bat guztientzako: frantsesa.
- 12)** Hizkuntza baten ikaskuntzarako murgiltze sistema gauzarik onena eta, aldi berean, txarrena da. 80ko hamarkadara joan behar dugu murgiltzeaz jarduteko. Garai hartan murgiltzea ezarri zuten han eta hemen, eta ongi da, baina ez da aski. Afera ez baita murgiltzea, nola gauzatzen den baizik, zein baldintzatan gertatzen den, nola kontrolatzen den prozesua, zeren eta idealizazio bat baitago murgiltze nozioaren inguruan.

Argia. Miel Anjel Elustondo. (moldatua)

ESALDIAK

X. Hizkuntza bat irakastea eginkizun zaila izan da beti

A. Arauetatik abiatu beharra dago hizkuntza arrotz baten irakaskuntzan.

B. Gramatika eta praktikaren arteko orekan datza hizkuntza baten irakaskuntza.

C. Hizkuntza asko desagertu dira erabaki politikoak direla medio.

D. Hizkuntza bat eta guztientzakoaren ezarpenaren atzean diru arrazoiak ere badaude.

E. Hizkuntza bat ikastea soilik gramatika ikastea izan da luzaroan.

F. Murgiltze estrategiak ez dira beti egokiak.

G. Sarritan, ikasleek euskara ikasteari uzten diote.

H. Tamalez, ez da hizkuntza bat behar bezala ikasteko metodorik asmatu.

Testu zatiak	0	7	8	9	10	11	12
esaldiak	X						

3. ARIKETA

Ariketa honetan *Berria* egunkariko artikulua bat duzu sei hutsunerekin. Zortzi esaldi edo esaldi zati eskaini zaizkizu. Hutsune bakoitzari hautatu dagokiona adibidean (0 zenbakia) bezala. Bi esaldi zati sobera daude. Esaldiak behin bakarrik erabili ahal dira.

Soldata arrakala eta bizitzaren sostengua

Zenbait psikologia ikerlanen arabera, hizkuntzak rol nabarmena betetzen du errealtatearen irudikapenean, komunikazioaren zerbitzuan erabili ohi den sistema izateaz gainera. Ikerlan horietan, ____0____: ea komunikatzeko darabilgun hizkuntzak zenbateraino baldintzatzen digun errealtatea prozesatzeko modua. Etxekoandre deritzen horiei buruz mintzo garenean, ____ (13) ____: «Nire amak ez du sekula lan egin», edo «nik ez nuen lanik egin haurrak hazten nituen bitartean». Era berean, halako zereginetan dihardutenak «ez-aktibotzat» sailkatzen dituzte estatistiketan. Hortaz, bada, ez da kontabilizatzen pertsona horiek —emakumeak, gehienbat— zer ekarpen egiten dioten ekonomiari, ongizateari, eta ez da hura balioesten, ez diruz ordaintzen. Lan baliogabetu bat da, hizkuntzaren bidez eta estatistiketan ematen zaion tratamenduaren bidez baliogabetua. Bestalde, lan hori beste pertsona batzuek egiten dutenean, ____ (14) ____ (hau da, etxeko langileen enplegua, batik bat emakumeek egina), gutxi ordaintzen da, eta beste enplegu batzuetan baino lan baldintza kaskarragoetan egiten da.

Ekonomian, ikuspeirik ohikoena da lan ordaindua bakarrik kontsideratzea lantzat. Hala, ez dira aintzat hartzen etxeko lanak eta zaintza lan ordaindugabeak. Ikuspegi feministatik, ordea, lan guztia aipatzen da, ____ (15) ____ . Iceberg handi baten bidez irudikatu ohi da: begi-bistako partea enplegu ordaindua da, eta, ezkutuko partean, berriz, etxeko lanak eta zaintza lanak daude, bizitza sostengatzeko ezinbestekoak. Lanaren banaketa sexuaren araberakoa izateak esan nahi du gizonak presenteago daudela lan ordainduetan (enplegu), eta emakumeak, ordaindugabeetan.

Errealtatea hori dela jakinik, orduan aise ulertzen da zergatik existitzen den oraindik ere emakumeen eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko egun bat. Emakumeen eta gizonen arteko lan desberdintasunak murriztu badira ere, ____ (16) ____ . Esaterako, EAEn, jarduera tasa (hau da, lanerako adina dutenen artean, enplegu baterako prest daudenen ehunekoa) txikiagoa da emakumeetan gizonetan baino.

Enplegurako prest ez egotea «erabaki duten» emakume horietako askok etxeko lanez eta etxeko zaintza lanez arduratzeko hartu dute erabaki hori. «Lan egiten duten» horien artean, lanaldi partziala da kontziliaziorako estrategiarik behinena, ____ (17) ____ . Lanaldi partzialeko enpleguak ordainsari txikiagoak sortzen ditu, baina ez bakarrik lanordu gutxiago dakartelako: baita oinarritzko lanbideetan metatzen delako eta aukera txikiagoa ematen duelako sustapenerako, prestakuntzarako eta lanbide karrerarako.

Nabarmentzekoa da jokabide interesatua dela etxeko lanak eta zaintza lanak baliogabetzea, lan horiek existitzen direla eta beharrezkoak direla onartzeak berekin baitakar kostu bat dutela onartzea ere. Kostu hori modu bidezkoagoan banatu behar da emakumeen eta gizonen artean, aktiboen eta ez-aktiboen artean, baita klase sozialen artean ere. Eta enpresek eta administrazio publikoek ekin beharra daukate, eta zenbait finantzabide erabili, ____ (18) ____ .

Bizitzaren sostenguari dagokion kostua gure sistema soziolaboralean sartzeak berekin dakar bestela bideratzea kontziliazio eredu, hain zuzen ere, familien, enpresen eta administrazio publikoen inplikazioa bultzatuko duen eredu baterantz. Eredu horrek hiru habe ditu oinarritzat. Lehena: guraso baimenak eta lizentziak guraso biek erabil ditzatela. Bigarren habea: zerbitzu publiko eskuragarriak eta kalitatezkoak mendeko pertsonak zaindu ahal izateko. Hirugarren habea: lanaldi laburragoak, 30-35 ordu ingurukoak, pertsona guztiek erantzukizunez joka dezaten zaintza lanetan, eta ez soilik lanaldi partzialeko kontratuak dituztenek.

Berria. Mari Luz de la Cal. (moldatua)

X. ZERA PLANTEATZEN DA

- A. BAI ORDAINDUA (ENPLEGUA) ETA BAI ORDAINDUGABEA
- B. BAINA DIRUZ ORDAINDUTA
- C. BANAKETA HORI GAUZATU DADIN
- D. EMAKUME BATZUEK ZAINITZA LANAK UTZI DITUZTELAKO
- E. ENPLEGUA BILATZEA ZAILA IZAN ARREN
- F. ETXEKO LANA ETA ENPLEGU ORDAINDUA UZTARTU AHAL IZATEKO
- G. HORIETAKO BATZUK HANDIAK DIRA ORAINDIK
- H. OHIKOAK DIRA HONELAKO ESAMOLDEAK

Hutsunea	0	13	14	15	16	17	18
Testu zatia	X						

4. ARIKETA

Ariketa honetan artikuluko bat duzue zortzi hutsunekin. Hutsune bakoitza betetzeko hiru aukera (a, b, c) dituzue. Hautatu dagokiona, adibidean (0 zenb.) bezala.

Etorkizuneko begirada

Munduko gertakari historiko garrantzitsuen gainean dagoen egungo ikuspegiaren ondoan, interesgarria da ____0____ bizi zuteneko perspektiba ere izatea. Jose Antonio Agirre lehendakariak II. Mundu Gerran idatzi zuen egunkari eta gutunetan XX. mendeko gure historiaren dokumentu garrantzitsuak izateaz gain, Gernikatik New Yorkera Berlinitik pasatuz berehala ____ (19)____ zaituen abentura liburua da. Unerik zirrargarrienetakoa 1940ko udaberrian daukazu, lehendakaria Flandriako kostaldean dagoela familiarekin; Alemaniak inbaditua du Polonia, eta Frantziara eta Europa mendebaldera ere joko duen ____ (20)____ geroz eta handiagoak dira. Mantxako itsasarte zeharkatzeko azken aukeren aurrean daukaten zalantza ia amorrarazteko ere baden inozotasunarekin irakurtzen dira.

Beste horrenbeste gertatu zitzaidan Imre Kertész-en Zoririk ez irakurtzean. Egia da literatur lan bati buruz ari garela kasu honetan, oinarri autobiografikoa daukan nobela bati buruz. Baina eleberraren detaile garrantzitsuenetakoak dira ziur aski nerabe baten ikuspegitik daukan ____ (21)____ eta begirada. Budapesten Daviden izarra janzen hasten den gaztetxoak eskertu ere egiten du trenez giro baztertzaila eta ____ (22)____ horretatik alde egiteko duen aukera. Auschwitz distantzia batetik hartzeko era bakarra ere bada ziur aski leku ezezagun bat bezala erakustea.

Asteotan ikusitako telesail eta filmen artean Hotel Rwanda latza dago. Filmaren hasieran Paul Rusesagari hoteleko zuzendariarengana doaz Thomas eta Felans adiskide tutsiak. Gertatzen dagoenaz ohartarazten diote, hark ere ikusiak ditu ____ (23)____, bezperan auzokide bat atzeman, jipoitu eta eramaten dutenean, eta hotelean bertan kutxa bat apurtu eta matxeteak agertzen direnean. Thomasek kezka adierazten dio, laguntzaile duen Interahamweko miliziako kide batek jakinarazi dio zer datorren, ____ (24)____ bizkorren alde egin dezan. Zuzendariaren erantzuna: egon lasai, zure laguntzaileak zure lekua hartzea besterik ez du nahi. Hortik aurrerakoa, egunotan ari dira 26. urteurrena gogorarazten: Tanzaniako bake-akordioak sinatzeetik bueltan zetorren hegazkina bota, Burundi eta Ruandako presidenteen hilketak, eta genozidioari ekiteko deia irratitik. Lana kentzeko asmoz egindako zurrumurrua esatetik luzaroan prestatutako genozidioa ____ (25)____ dela ohartarazi bitartean egun gutxi baino ez ziren; minutu batzuk doi-doi filmeko metrajea.

Frantzia okupatzen zela munduaz zuten begirada, Holokaustoaren atarian izan zezaketena edo Ruandako genozidioaren bezperatan zeuden zurrumurruren aurrean zeukaten jarrera, une horietan hartutako erabakiak, oso zailak dira gaur egunetik baloratzea, baina oso interesgarriak dira, halaber, historiaren ____ (26)____ hobeto ezagutzeko.

2020 honetan idazten eta esaten ditugunak beste begirada batekin ikusiko dira bost, hogeitau edo berrogeita hamar urte barru. Egunotako erabakiak, iragarpenak eta gezurrak, nola ez. Nork eta zergatik egin zuen zer. Baina zaila da, oso, gaur egungo begiekin dimentsio horri heltzea. Horregatik da interesgarria egunerokotik ere irtetea, literaturan, zineman, bertsoan babes hartzeko. Beste begirada batzuk izateko.

Berria. Urtzi Urrutikoetxea. (moldatua)

<p>0.- a) hirian b) ongi c) <i>unea</i></p> <p>19.- a) ahazten b) gogoratzen c) harrapatzen</p> <p>20.- a) esamoldeak b) korapiloak c) zurrumurrak</p> <p>21.- a) ahalmenak b) hausnarketak c) matxurak</p>	<p>22.- a) babesgarri b) bideragarri c) itogarri</p> <p>23.- a) aztiak b) zantzuak c) zotzak</p> <p>24.- a) ahalik eta b) gero eta c) zenbat eta</p> <p>25.- a) abian b) bukatu c) gezurra</p> <p>26.- a) egileak b) garabiak c) gorabeherak</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Hutsunea	0	19	20	21	22	23	24	25	26
Hitza	C								